

Lindanne**“Musika egitea oso garestia da”**

**Duela pare bat urte bi laguneren artean bapatean sortu zen ideia errealitate bihurtu da. Ez zekiten musika egiten ezta ezer jotzen. Animoak lagun eta PAM-ekoekin laguntzarekin aurrera atera da Lindanne boskotea. Alazne baterian, Gari eta Xabier gitarra jotzen, Ainara baxua jotzen eta Sornek ahotsa jartzen dio hasi berria den ermuar talde honi.**

**- Nola sortu zen taldea?**

Behin Berrizen gutariko bi kartelak pegatzen geundela, talde bateko jendea ekipoarekin ikusi genuen furgoneta batean igotzen eta ideia ona iruditu zitzaigun: talde bat sortu, jende eta leku ezberdinak ezagutu eta ondo pasatu.

**- Ideia buruan zeneukaten baina gero nola egin zenuten aurrera?**

Kuadrilako jendeari komentatu genion eta batzuk ez zuten proiektuan sinesten. PAM-ekokin ere hitz egin genuen eta eurak animatu eta asko lagundu ziguten. Hasieran ez geneukan materialik ezta dirurik ere ezer erosteko, eta musika egitea oso garestia da. Orduan beraiek erabiltzen ez zituzten tresnak utzi eta berain lokalera probatzera joateko esan ziguten eta horrela hasi ginen Alazne, Naroa, Ainara eta Sorne.

**- Hasi zinetenetik aldaketarik taldean...**

Bai. Ideia sortu eta hasi ginenetik bi urte pasa dira. Hasieran 4 neska ginen. Gari gurekin jotzera animatu zen eta abestiak egiten hasi zen, guri laguntzen, berak esperientzia gehiago zuen, beste talde batzuetan aritu izan da eta nolabait dinamika serioago batean sartu ginen. Orduan boskotea osatu genuen baina batek, Naroak hain zuzen ere utzi egin zuen denboraldi baterako. Bere hutsunea betetzeko Xabierri komentatu genion, berak gitarra jotzen zuelako eta animatu egin zen.

**- Lokala PAM-ekoekin erdibana duzue.**

Bai. Hasieran frogia egin genuen, bi taldeok nola moldatzen ginen elkarrekin ikusteko eta gustora geundenez, aurrera jarraitu genuen.

**- Beraz orain zuen dirua inbertitzen ari zarete taldean, gauzak erosi, lokala ordaindu...**


Erdipurdika dago kontua. Badaude

gureak diren gauza batzuk, baina beste asko eskatutakoak dira oraindik ere. Egia esan, hasieran erabiltzen genuen materiala ez zen jotzeko modukoa, jendeak alde batera utzita zeukan materiala zen baina gutxieneko bat bageneukan entsaiatzen eta ikasten hasteko.

Dena den, orain arte egin ditugun kontzertuetan atera dugun diru apurra ere, materiala erosteko erabili dugu. Egia esan, horretarako nahi dugu dirua, materialean inbertitzeko.


**- Zein musika mota egiten duzue?**

(Barreak) Punk-rock, hardcore melodikoa... hori diote. Egia esan, gutariko batzuei hemen egin den musika, nolabait esateko musika “kañeroa” beti gustatu izan zaigu, beste batzuei ez ordea. Kontua da, gauza asko nahasten direla. Alde bate-tik, dakiguna jotzen dugu, bestalde, Xabi, Alaznek eta Garik tendentzia markatua-goak dituzte, Sorneri beste musika mota



**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalerean  
bihotzean**



**BAR  
BOINKALE**



**MUGA**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**KIKIOLAK**



bat gustatzen zaio eta Ainarari beste bat. Beraz azkenean ateratzen zaiguna guk ere, ez dakigu nola definitu. Baina gu gustora gaude, aberasgarria da eta abestiak oso ezberdinak dira bata bestearekin. Egia da ez dela musika konplexua. Melodiek asko jokatzen dugu.

**-Taldeko izenarekin buru-hausteak izan omen dituzue...**

Bai, ez zen lan erraza izan guztion gustokoa zen izena bilatzea. Azkenean desatseginenena ez zena aukeratu dugu.

**-Zuen lehenengo kontzertuak egiten ari zarete. Nola ikusten duzue zuen burua eskenatokian?**

Urduri jartzen gara, baina gero eta hobeto. Sentimendu askoren nahasketa da: lotsa, emozioa, urduritasuna... Oso berriak gara eta jendeak oraindik ez dakizkiela gure abestiak eta begira-begira egoten da kontzertuetan, orduan horrek

sentioa sortzen du. Hala ere, nahiz eta jende aurrean jotzeko ohitura hartu, beti egongo da urduritasun puntu hori.

**-Zenbat abesti dituzue?**

Momentu honetan 10 bukatuta, beste bi berri bidean eta bi bertsio.

**-Zuek sortzen duzue musika eta letra?**

Dauzkagun kantak gureak dira eta pare bat bertsio egin ditugu kontzertuetan jotzeko. Eskorbutorena bat eta Paralisis Permanenterena bestea.

Normalean musikaren oinarria Garik ateratzen du, gero lokalean frogak eginez ateratzen ditugu eta guztion artean erabakitzen dugu. Letra normalean Sornek egiten du eta besteok ideiak ematen ditugu.

**-Zein gai jorratzen dituzue abestietan?**

Denetarik. Abestiek bere esanahia dute baina ez dute zuzenean esan nahi duguna adierazten, interpretazio ezberdi-

nak egiteko aukera ematen dute, nahiz eta guretzat esanahi zehatza duten.

**-Zer esan nahi duzue zuen abestiek?**

Abesti batzuk gure pentsamendu eta sentimenduetan oinarritzen direnak dira. Beste letra batzuk sozialagoak dira. Dena den, orokorrean barne pentsamendutik ateratzen zaizkigun letrak direla esango genuke. Ikuspegi oso pertsonaletik egingo dakoak alegia.

**-Zerbait grabatzeko asmorik bai?**

Grabatu dugu 7 abestirekin KD bat baina ez dugu saldu, guretzako egin dugu, guk entzuteko eta egia esan, gustora gertatu gara. Taldea aurrera badoa eta kontzertuak egiten jarraitzen badugu, aurrerago 12 kantekin maketa bat egin daiteke. Orain arte ez gara batere mugitu eta hiru kontzertu egin ditugu, beraz kontzertuak egiten jarraitzeko asmoa dugu.

*Alazne Aiestaran*

# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA

## ELEKTRIZITATEA ZUBIAURRE

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61

48260 ERMUA